

EROSKIren Batzar Nagusia izan da gaur

**EROSKI-K 2020RA BEGIRAKO PLAN ESTRATEGIKO
BERRIARI HELDUKO DIO, ETA ARDATZA
LEHIAKORTASUNEAN JARRIKO DU**

- **Kooperatibak zenbait lehenetasun jarri ditu helburu gisa: bere merkatuetan lehiatzea, Bezero Bazkidea estrategiaren erdigunean jartzea eta bere taldeen gaitasunak indartzea**
- **Batzar Nagusiak, kooperatibaren organo erabakitzaile gorenak, 250 langile bazkide eta 250 kontsumitzaile bazkide deitu ditu bilkurara**

Barakaldo, 2016ko ekainaren 15a.- [EROSKI](#) kooperatibak Ohiko Batzar Nagusia egin du gaur arratsaldean, Barakaldon (Bizkaia); batzar horretara, langile bazkide eta kontsumitzaile bazkide guztien 500 ordezkari zeuden deituta.

EROSKIko presidentek, Agustin Markaidek, 2012an prestatu eta aurten amaituko den Plan Estrategikoak zer-nolako lorpenak ekarri dituen aztertu du. Tarte horretan, sendotu egin da finantza egitura iraunkorra, banaketaren ohiko jarduerak sortzen dituen baliabideen bidetik. Bestalde, Zurekin eredu komertziala garatu da, eta, horrela, arreta pertsonalizatua indartu eta sorta zabalak jarri dira, kontsumitzaileak aukera askatasun handiagoa izan dezan; zeregin horretan, elikagai freskoek eta tokiko produktuek hartu dute garrantzia, biak ere funtsezkoak baitira elikadura osasungarria eguneroko jarduna izan dadin.

EROSKIko presidentek banaketa sektoreko gakoak erreparasatu ditu aurrean zituela kooperatibako bi komunitateetako bazkideak; zehazki, Langile Bazkideen eta Kontsumitzaile Bazkideen 500 ordezkari: "*Kontsumitzaileek konfiantza handiagoa dute orain guregan; izan ere, ondasun iraunkorraren kontsumoa normalizatu egin da, baina horrek ez du ekarri elikagaien kontsumoa handiagoa izatea. Sektoreko gakoak dagokienez, merkatua handia da, egonkorra, alderdi globaletik begiratu, eta elastikotasun gutxikoa errentari begira, baldin eta alderatzen badugu familia gastuaren beste kapitulu batzuekin; kontsumitzailea, berriz, zorrotza eta aldaketetara laster egokitzen dena da. Merkatu honetan, denda berriak laster irekitzen dira, eta horrek asko bizitzen du lehia; hori dela eta, operadore guztiek bilatzen dituzte negozio formula berriak, eta norberak bere formula arrakastatsuak indartzen ditu, berriak bilatzearekin batera".*

EROSKI gogoeta berri eta sakon bati ekingo dio aurten, eta hortik ateratako gidalerroek zuzenduko dute Taldea, ondoko ziklo estrategikoan, 2020ra arte. Bere

EROSKI

Korporazioaren Komunikazio Zuzendaritza
OSCAR GONZÁLEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoan](#)

hitzaldian, Markaidek zenbait galdera egin dizkio auditoriumean zirenei: *"Nolako izan behar du Zurekin 2020 dendak? Zergatik aukeratuko du bezero batek gurea beste denda batzuetara joan badaiteke?"*. Erronka berriei ekiteko, kooperatibak zenbait lehentasun jarri ditu helburu gisa: bere merkatuetan lehiatzea, Bezero Bazkidea estrategiaren erdigunean jartzea eta bere taldeen gaitasunak indartzea.

Bestalde, EROSKIren Kontseilu Errektoreko presidentek, Leire Mugerzak, zera aitortu du, Langile Bazkideen konpromisoa eta eginahal handiak izan direla aurten amaituko den plan estrategikoan. *"Azken urteetan, geure buruari erakutsi diogu EROSKIIn kultura kooperatibo sendoa dugula, prest gaudela erabakiak hartzeko, informazioa partekatuta eta barne kontsentsu handiarekin, betiere lehentasuna emanaz gure proiektu sozioenpresarial komunari"*, esan dio Mugerzak, Kontseilu Errektorearen izenean, Langile Bazkideen kolektibo guztiari. Eta, bere tarte amaitzeko, honela gogorarazi du: *"Enpresa jardueraren bitartez gizartea eraldatzea da gure helburu kooperatiboetako bat"*, eta ondoren, hauxe gaineratu du: *"Gaur egun, EROSKI inoiz baino hobeto dago prestatuta gizarte bidezkoago, solidarioago, iraunkorrago eta osasun eta ongizate maila hobeto baten alde egiteko"*.

Urteko kontuen onarpena eta emaitzen banaketa

EROSKIren Batzar Nagusian onartu egin dira EROSKI Taldearen urteko banakako kontuak eta kontu kongsolidatuak, baita 2015. urteko ekitaldiaren Kudeaketa Txostena ere.

EROSKIik emaitzen banaketan beti izan dituen irizpideei jarraituta, kooperatibako bazkideek emaitza negatiboaren %20 beren gain hartzea erabaki dute; Langile Bazkide bakoitzak kooperatiban duen kapital kontuko erreserba bereizi negatibo indibidualizatu batera pasatuko dira emaitza horiek.

"Aurten irabaziak izango ditugula espero dugu. Datozen urteetan, gure lehentasuna kooperatiba indartzea izango da, eta, horrekin batera, erreserba negatibo indibidualizatu horiek era progresiboan konpentsatzea", esan du Agustin Markaidek.

EROSKI

Korporazioaren Komunikazio Zuzendaritza
OSCAR GONZÁLEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoan](#)